



UDA IKASTAROK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
UPV/EHU

Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?

Miramar Jauregia. Donostia/San Sebastián. Irailak 11 eta 12. 2018
G04-18 kodea

EHuko uda ikastaroa

HITANOA ETA GENEROA: ABERASTASUNA ALA SEXISMOA?

Olatz Altuna
Karlos Aretxabaleta
Onintza Legorburu
Bernardo Atxaga
Amelia Barquin
Kike Amonarriz
Josune Zabala
Olatz Bengoetxea
Jaime Altuna
Jone Miren Hernández
Iñigo Beltia
Andoni Egaña
Elixabet Pagola
Garbiñe Bereziartua
Beñat Muguruza

IRAILAK 11-12
MIRAMAR JAUREGIA

www.hitanoaz.eus
www.ulk.eus/eu

EZ DINK
INORTXOK
HITZ EGITEN.

EZ DUNK
IZARI-TAILA
HAIN
KAKKARRA..

EIN?

EDIN ZIONK
ERO DEN EGUNA
PASATAKOA...

Olatz / Zaka / BERRA

Antolakuntza Batzordea / Comité Organizador / Organising Committee

Fundación BBVA



Aurkibidea

01. EGITARUA

02. IKASLEAK

- 2.1 Ikasle zerrenda
- 2.2 Ikasleriaren asebetetasun maila
- 2.3 Hurrengo edizioetan zein gai jorratu
- 2.4 Iradokizunak

03. IRAKASLEAK

- 3.1 Irakasleriaren asebetetasun maila
- 2.2 Hurrengo edizioetan zein gai jorratu
- 2.4 Iradokizunak

04. PRENTSA

- 3.1 Prentsa oharrak
- 3.2 Komunikabideetan agerpenak
- 3.3 Argazkiak
- 3.4 Laburpena

—

01.

EGITARAUA
PROGRAMA

Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?

11.Ira - 12.Ira

Kod. G04-18



Edizioa

2018

Jadueria mota

Ikastaroa

Data

11.Ira - 12.Ira

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Web

<https://www.hitanoaz.eus/>

ZUZENDARITZA

Beñat Muguruza Aseguinolaza, UPV/EHU

Antolakuntza Batzordea

Fundación **BBVA**



Azalpena

Hitanoa deritzogun tratamendua euskararen ezaugarri interesgarria da hainbat motiborengatik, eta segur aski ez du behar besteko arretarik jaso ikerkuntzari dagokionez. Ikastaro honetan generoaren ikuspegitik helduko diogu hitanoari; hizkuntza inklusiboaren eta genero-markak kentzearen aldeko joera dagoen honetan, zer leku hartzen du, edo hartu beharko luke egungo jendartean, bi generoak argi eta garbi bereizten dituen tratamenduak?

Hainbat adituk haien ikerketa eta hausnarketak plazaratuko dituzte ikastaro honetan, eta besteak beste antropologia, soziolinguistika, bertsolaritza eta literaturatik begiratuko diete hitanoak eta generoak topo egiten duten bidegurutzeari.

Helburuak

Hiztunen generoa kontuan hartzen duen hika tratamendua genero-berdintasunaren prismatik aztertzea.

Hitanoaren erabileraren gaineko ikerketek zer eman duten ezagutzea.

Inguruko erdaretan genero-markak apaldu edo are saihesteko joera dagoen honetan, hitanoaren genero-bereizketak zein leku izan dezakeen eztabaidatzea.

Euskararen biziberritzean eta normalizazio-prozesuan hitanoaren erabilera lagungarri suerta daitekeen aztertzea.

Programa

2018-09-11

09:00 - 09:10	Dokumentazio banaketa
09:10 - 09:30	Aurkezpena
09:30 - 10:45	“Zenbateraino hika Azpeitian?” Olatz Altuna Zumeta Soziolinguistika Klusterra - Euskara teknikaria Garbiñe Bereziartua Etxeberria UPV/EHU - Unibertsitateko irakaslea
10:45 - 11:45	“Hitanoa bertsolaritzan: genero-begiradak” Beñat Muguruza Aseguinolaza UPV/EHU - Unibertsitateko irakaslea
11:45 - 12:15	Geldiunea
12:15 - 13:00	“Arratiako noketaren galera XX. mendean zehar” Karlos Aretxabaleta Ormaetxea Deustuko Unibertsitatea - Ikertzailea
13:00 - 13:45	“Antzuolan noketan: zer gertatzen ari da?” Onintza Legorburu Larrea UPV/EHU - Ikertzailea
13:45 - 14:00	Sintesia
15:30 - 17:00	Mahai ingurua: “Hitanoaren erabilera: ikuspuntu desberdinak” Josune Zabala Alberdi Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza-ikerkuntzako zuzendaria (Moderatzailea) Bernardo Atxaga Autonomoa - Idazlea Amelia Barquín López HUHEZI (Mondragon Unibertsitatea) - Irakaslea eta ikertzailea

2018-09-12

09:15 - 10:15	“Hitanoa eskolan lantzeko egitasmoa: Azpeitia eta Zumaia” Josune Zabala Alberdi Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza-ikerkuntzako zuzendaria Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterra - Euskara Teknikaria
10:15 - 11:30	“Ba al dago hizkuntza neutrorik? Euskara generoaz ere mintzo da”

Jaime Altuna Ramírez UPV/EHU - Ikertzailea
Jone Miren Hernández García UPV/EHU - Irakasle eta ikertzailea
Iñigo Beitia UPV/EHU - ikertzailea

11:30 - 12:00 Geldiunea

12:00 - 13:30 "Aizank hi mainontzi"

Andoni Egaña Makazaga Autonomoa - Bertsolari eta idazlea
Elixabet Pagola Apezetxea Gipuzkoako Bertsozale Elkartea - Bertsolaria.
Hezkuntza arautuko irakaslea

13:30 - 13:45 Sintesia

— 02.

IKASLEAK ALUMNADO

2.1 Ikasle zerrenda

Abizenak, Izena	Ikasketa maila	Lanbidea	Egiten ari zaren edo eginiko ikasketak	Territorioa	Nazionalitatea
Agirre Goia, Eñaut	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	9.- Besteak	10. - Filologia		Espainia
Aizpurua Etxarte, Karlos	3.- Gradua (1 zikloko ikaslea, Diplomatu)	2.- Besteren konturako langile	10. - Filologia		Espainia
Alberdi Legorburu	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	3.- Norberaren konturako jarduera profesionala	19. - Historia		Espainia
Alberdi Zumeta, Laura	3.- Gradua (1 zikloko ikaslea, Diplomatu)	6.- Ikaslea	44. - Besteak		Espainia
almandoz forcén, ana	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	3.- Norberaren konturako jarduera profesionala	2. - Arkitektura		Espainia
Arin Elizagoyen, Ugaitz	3.- Gradua (1 zikloko ikaslea, Diplomatu)	1.- Herri-administrazioa	31. - Magisteritza		Frantzia
Ariztimuño Lopez, Borja	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	2.- Besteren konturako langile	10. - Filologia		Euskalduna
Arretxe Agirre, Eñaut	3.- Gradua (1 zikloko ikaslea, Diplomatu)	1.- Herri-administrazioa	10. - Filologia		Euskal herritarra
Arrieta Cristobal, Laida	4.- Máster Universitario (Estudiante 2º ciclo, Licenciado/a)	1.- Administración pública	38. - Psicología		
Aseguinolaza Montes, Maite	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	2.- Besteren konturako langile	44. - Besteak	Gipuzkoa	Espainia
Astiazaran Aristizabal, Luisa	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	7.-Erretiratua	44. - Besteak	Gipuzkoa	Espainia
Azkue Ibarbia, Xabier	4.- Máster Universitario (Estudiante 2º ciclo, Licenciado/a)	1.- Administración pública	10. - Filología		Fiyi
Branton de Langlois, Aritz	3.- Gradua (1 zikloko ikaslea, Diplomatu)	4.- Norberaren konturako enpresa aktibitatea	10. - Filologia	Gipuzkoa	Ingelesa
Eizagirre Landa, Xabier	3.- Gradua (1 zikloko ikaslea, Diplomatu)	9.- Besteak	44. - Besteak	Gipuzkoa	Espainia
Elorza Guereño, Irene Elorza	6.- Besteak	2.- Besteren konturako langile	22. - Informazio Zientziak	Gipuzkoa	Espainia
Epelde Cendoya, Irantzu	5.- Doctor/a (Estudiante 3er ciclo)	9.- Otros	10. - Filología	Gipuzkoa	España


Abizenak, Izena	Ikasketa maila	Lanbidea	Egiten ari zaren edo eginiko ikasketak	Territorioa	Nazionalitatea
Eraña Arbulu, Ane	3.- Gradua (1 zikloko ikaslea, Diplomatura)	6.- Ikaslea	10. - Filologia	Gipuzkoa	Euskalduna
Garate Laka, Kristina	4.- Máster Universitario (Estudiante 2º ciclo, Licenciado/a)	7.- Jubilado/a	16. - Educación Social		España
Garmendia Imaz, Itsaso	2.- Batxilergoa eta Lanbide Heziketa (BBB 3, UBI)	6.- Ikaslea	38. - Psikologia	Gipuzkoa	Espainia
Garmendia Iturria, haritz	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	1.- Herri-administrazioa	1. -Antropologia	Gipuzkoa	Euskal herritarra
GOIBURU LÓPEZ, LEIRE	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	1.- Herri-administrazioa	10. - Filologia	Gipuzkoa	euskalduna
Gonzalez Macizo, Xabier	3.- Gradua (1 zikloko ikaslea, Diplomatura)	6.- Ikaslea	10. - Filologia	Bizkaia	Espainia
Imaz Arrondo, Alaitz	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	1.- Herri-administrazioa	19. - Historia		Espainia
Inglis, Dylan	2.- Bachiller y Formación Profesional (3º BUP, COU)	6.- Estudiante	14. - Geografía		Reino Unido
Jauregi Aiestaran, Saroi	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	2.- Besteren konturako langile	10. - Filologia		Espainia
Legorburu Ibarguren, Lierni	2.- Batxilergoa eta Lanbide Heziketa (BBB 3, UBI)	1.- Herri-administrazioa	44. - Besteak		Espainia
LETURIAGA ANGOITIA, OLATZ	3.- Gradua (1 zikloko ikaslea, Diplomatura)	6.- Ikaslea	10. - Filologia		Espainia
Lopez Corchero, Jon	2.- Bachiller y Formación Profesional (3º BUP, COU)	6.- Estudiante	42. - Ciencias Políticas	Gipuzkoa	España
MARTINEZ DE LA HIDALGA MALLA, GILLEN	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	2.- Besteren konturako langile	10. - Filologia	Gipuzkoa	Espainia
MUGURUZA ASEGUINOLAZA, GARAZI	4.- Máster Universitario (Estudiante 2º ciclo, Licenciado/a)	2.- Trabajador/a por cuenta ajena	38. - Psicología	Gipuzkoa	España
muguruza ugarte, jabier	3.- Gradua (1 zikloko ikaslea, Diplomatura)	9.- Besteak	44. - Besteak		Espainia
Odria Aldazabal, Jose Luis	2.- Bachiller y Formación Profesional (3º BUP, COU)	7.- Jubilado/a	44. - Otros	Gipuzkoa	Euskalduna

Abizenak, Izena	Ikasketa maila	Lanbidea	Egiten ari zaren edo eginiko ikasketak	Territorioa	Nazionalitatea
Odria Tudanca, Ane	5.- Doktorea (3 zikloko ikaslea)	1.- Herri-administrazioa	10. - Filologia	Gipuzkoa	Euskalduna
Olariaga Aranburu, Antton	6.- Otros	9.- Otros	44.- Otros		-
Olazabal Lezertua, Jon	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	1.- Herri-administrazioa	10. - Filologia	Gipuzkoa	Euskalduna
Otamendi Egiguren, Mila	3.- Gradua (1 zikloko ikaslea, Diplomatua)	1.- Herri-administrazioa	31. - Magisteritza		
Otaño Mugica, Iraitz	3.- Gradua (1 zikloko ikaslea, Diplomatua)	6.- Ikaslea	1. -Antropologia	Gipuzkoa	Espainia
Permach Martin, Nerea	4.- Máster Universitario (Estudiante 2º ciclo, Licenciado/a)	6.- Estudiante	18. - Ciencias de la Educación		Espainia
Saez Beloki, Patxi	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	1.- Herri-administrazioa	22. - Informazio Zientziak	Gipuzkoa	euskalduna
Sagastume Agirre, Martxeli	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	1.- Herri-administrazioa	10. - Filologia	Gipuzkoa	Espainia
Sasiain Aranbarri, Juan Cruz	6.- Besteak	1.- Herri-administrazioa	44. - Besteak		Espainia
Telletxea Goikoetxea, M ^a Teresa	4.- Máster Universitario (Estudiante 2º ciclo, Licenciado/a)	1.- Administración pública	10. - Filología	Gipuzkoa	España
Uskola Atxabal, Joseba	4.- Master Unibersitarioa (2 zikloko ikaslea, Lizentziatua)	1.- Herri-administrazioa	40. - Soziologia	Bizkaia	Espainia
Villasante Gomez, Maite	3.- Gradua (1 zikloko ikaslea, Diplomatua)	2.- Besteren konturako langile	38. - Psikologia		Euskal Herria
Varza Urquiola, Cristina	4.- Máster Universitario (Estudiante 2º ciclo, Licenciado/a)	7.- Jubilado/a	19. - Historia	Gipuzkoa	España

2.2 Ikasleriaren asebetetasun maila


IKASLE KOPURUA	ERANTZUN KOPURUA
46	30

EGITARAUUA




- Espero zenuenari erantzun dio egitarauak
- Egitarauko gaien edukien kalitatea
- Ikastaroaren iraupena
- Gaiari buruz ikastaroan emandako dokumentazioaren kalitatea

HIZLARIAK



ANTOLAKUNTZA



2.3 Hurrengo ediziotan zein gai jorratzea gustatuko litzaizuke? *

DOKUMENTAZIOAREN AZALPEN GUZTIAK EUSKARAZ JARRI. EUSKARAZKO LIBURU ELEKTRONIKOAK
EUSKARA, FEMINISMOA
Hau bera sakontzea ere ondo legoke
Sema-alaben edo ikasleen hezkuntzan nola parte-hartu. Emozioen ulermena eta hauen erregulazioa
ZINEMA ETA FEMINISMOA

2.4 Ikasleriak egindako iradokizunak *

--

*Hitzez-hitzeko transkripzioa

—

03.


IRAKASLEAK
PROFESORADO

3.1 Irakasleriaren asebetetasun maila

HIZLARIAK	ERANTZUN KOPURUA
14	6

EZ ADIERAZGARRIA / NO REPRESENTATIVO

ANTOLAKUNTZA / PROCESO ORGANIZATIVO



■ Parte-hartzearen kudeaketa (gonbidapena, baldintza onarpena, ostatu / bidai erresebak, e.a.)

■ Ikastaroaren zuzendaritzak egin duen parte-hartzaileen hitzaldien koordinazioa

■ Ikasleentzako dokumentazio-kudeaketa

■ Hitzaldia emateko dokumentazioaren kudeaketa



- Jardueran jasotako arreta (azafatak, zerbitzu teknikoa, e.a.)
- Ostatua
- Azpiegitura, ekipamendu teknikoa
- ESPERIENTZIAREN BALIOESPEN OROKORRA

BESTEAK

	BAI	EZ	
Datozen edizioetan parte hartzeko interesa	6		Zenbat urtetan etorri zara?
Uda Ikastaroetako aurreko edizioetan parte hartu al duzu?	5	1	5 / 6 / 3 / 5 / 4
			Baiezkoa erantzun baduzu, nolakoak baloratzen dituzu UPV/EHUko Uda Ikastaroak?
Beste Unibertsitateko Uda Ikastaroetan parte hartu al duzu?	4	2	Berdin / Berdin / Berdin

3.2 Hurrengo ediziotan zein gai jorratzea gustatuko litzaizuke? *

Hizkuntzaren antropologiarekin lotutako gaiak
Energiaren sorkuntza berriztagarriak

3.3 Hobekuntzak *

**Hitzez-hitzezko transkripzioa*

— 04.

PRENTSA PRENSA

4.1 Prentsa

Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?

Hitanoa da euskararen tratamendu informala, berdinen artean eta goitik beherako harremanetan erabili ohi dena. Sexu-generoaren arabera bereizketa da hitanoaren bereizgarri nagusietako bat, eta emakumeari edo gizonari egin, aldatu egiten dira aditz-formak. Azken hamarkada hauetan behera egin du nabarmen hitanoak; gizonezkoei artean toka (gizonezkoei egiten zaien hika-modua) egitea Euskal Herriko txoko askotan oraindik ohikoa bada ere, bai emakumeek hika egitea bai emakumeei hika egitea gero eta gutxiago aditzen den fenomeno da.

Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa? Ikastaroan, genero-ikuspegitik helduko diogu hitanoaren gaiari. Alde batetik, nokaren (emakumeei egiten zaien hika-modua) galerari dagokionez, interesgarria da aztertzea zer konnotazio duen trataera bakoitzak, eta horri lotuta zergatik mantendu den sendo xamar gizonen artean, eta ia desagertu emakumeen artean. Bestetik, nokaren ikusgarritasun faltak maiz eramaten ditu gizonak (batzuetan emakumeak ere bai) emakumezkoei toka egitera, gizonak izango balira bezala. Emakume askok, bistan da, ez dute gustuko haiei gizonak izango balira bezala zuzentzea. Azkenik, gero eta gehiago dira genero-binarismoa gaingitu eta ikuspuntu horretatik jendarte anitzago baten alde borrokan ari direnak, jende asko ez baita eroso sentitzen "emakume" edo "gizon" etiketaren pean. Beraz, gure erdaretan ezaugarri femenino eta maskulinoak neutralizatzen saiatzen ari garen honetan, zer paper jokutzen du XXI. mendean, sexu-generoak bitan hain argi bereizten dituen hitanoak?

Olatz Altuna eta Garbiñe Bereziartuak emango diote hasiera ikastaroari. Olatz Altunak koordinatu du berriki, Soziolinguistika Klusterraren baitan, inoiz egin diren lehenengo hitanoaren kale-erabilera neurketak, Usurbilen eta Azpeitian. Erabilitako eta metodologiaren eta emaitzen berri emango digu. Ilde beretik, Bereziartuak azalduko digu Azpeitian egiten ari diren ikerketa, zeinetan Azpeitiko 1.500 herritar ingururen hitanoaren erabilera, iritzi, ikuspegi eta desirak jaso dituzten. Bereziartuaren ikerketa-taldeak, herrian diagnostiko sakona egin ondoren, hitanoa biziberritzeko egitasmoa diseinatu du Azpeitian.

Bertsolaritza eta hitanoaren arteko harremanei begiratu die Beñat Muguruzak. Hitzaldi honetan, emakumeek hika oro har gutxiago egitea bertsotan nola islatzen den aztertuko du. Ondoren, Karlos Aretxabaleta eta Onintza Legorburuk hartuko dute hitza. Aretxabaletak Arratiara (Bizkaia) jo zuen bere ikerketa egitera, bailarako noketaren galerak atentzioa eman baitzion. Arratiako zenbait herritako biztanleekin hitz egin du, beherakada horren atzean egon litezkeen zergatiak bilatzeko. Legorburuk, berriz, Antzuolan kokatu du bere ikerketa. Toka eta nokaren erabileraren artean zer alde dagoen aztertu du, zergatik eman den hori, eta nola sentitzen den diren herritarrak. Behaketen eta elkarriketa sakonen bidez lortu ditu emaitzak, eta genero aldetik hausnartzeko parada emango digute.

Arratsaldean mahai-inguruaren txanda izango da. Josune Zabalak moderatuko du, eta bi aurpegi ezagunek mahaigaineratuko dituzte haien iritziak. Batetik, Mondragon Unibertsitateko Amelia Barquín irakasle eta ikertzailea izango dugu. Barquínek euskararen erabilera ez-sexista urte luzez landu du, eta genero-aniztasunaren eta binarismoren gainean ikertutakoa da.

Bestetik, Bernardo Atxaga idazlea izango dugu, eta hitanoarekin izan dituen bizipen eta pentsamenduak izango ditu hizpide.

Hurrengo goizean, Josune Zabala eta Olatz Bengoetxeak hartuko dute hitza. 2011n hasi zen Soziolinguistika Klusterra Azpeitia eta Zumaia-ko eskoletan hika erabiltzeko unitate didaktikoa diseinatzen, eta Zabala eta Bengoetxea izan ziren egitasmoaren arduradunak. Azalduko digute unitate didaktikoak genero-ikuspegitik nola landu zituzten, eta bidean izandako zalantzen gainean eztabaidatuko dute. Ondoren, Jone Miren Hernández, Jaime Altuna eta Iñigo Beitiaren txanda izango da. EHUko ikertzaile horiek euskararen eta generoaren gainean ikertzen dihardute, hizkuntzaren neutraltasuna zalantzan jarriz, eta euskarak generoa noiz eta nola markatzen duen erakutsiz.

Eli Pagola eta Andoni Egañak itxiko dute ikastaroa. Biak bertsolariak dira, baina Pagolak, batez ere, Hernanin antolatu zuten noka-ikastaroari buruz hitz egingo du. Emakumearen ahalduzua zuen jomuga ikastaro horrek, eta ideia nondik etorri zen azalduko digu, baita eskolek emandakoen berri emango ere. Egañak hitanoa izango du hizpide, noski, bai bertsotan bai bertso-munduan. Emakumezkoekin eta gizonezkoekin izandako bizipenak plazaratzeko aukera izango du, eta debatea irekiko dugu bi hizlariarekin, eta ikus-entzuleek ere parte hartzeko aukera izango dute.

Ez dio ikastaro honek, segur aski, irtenbiderik aurkituko hitanoaren eta generoaren arteko auzi konplexuari, baina egungo egoera ondo ezagutu eta horren gainean gogoeta egiteko aukera eskainiko digu, zalantzarik gabe.

IZAN AL DUTE ERAGINIK GENERO ROLEK, NOKETAREN GALERAN ETA TOKETAREN BIZIRAUPENEAN ANTZUOLAN?

Onintza Legorburuk aurrera eramandako, eta Antzuolan (Gipuzkoa) kokatuta dagoen ikerketa honek, genero rolek noketaren galeran eta toketaren biziraupenean izan duten eragina aztertzea izango du helburu nagusizat. Horretarako erabilitako metodologia, bi behaketa herriko taberna ezberdinetan eta 12 sakoneko elkarrizketa izan dira. Ikerketan parte hartutako elkarrizketatu guztiak antzuolarrak izan dira, Juan Martin Elexpuru Deba Goieneko euskararen aditua izan ezik; hau bergararra baita.

Beste elkarriketatu guztiak antzuolarrak izan arren, heterogeneotasuna bilatzen saiatu da adin, sexu edota hiketarenganako duten harremanean.

Hori horrela, eta Antzuola herri euskalduna izaki – kalean entzuten diren elkarriketen %65,5 euskaraz baitira-, herri nahiko hikatzailea dela esan liteke. Zehaztasunez tokatzailea dela esan genezake, eta hiketari – gehienetan toka- ari den subjektua gizona litzateke.

Hala nola eta zehaztasunetara etorritik, orokorrean hitanorako mudantza – zuek hitanorako saltoa- eman dadin, adinak badu garrantzirik Antzuolako mutil gazteen artean, batez ere. Haurtzarotik gaztetasunerako igarobidean eman ohi da, zuek tokarako saltoa. Trantsizio honetan, aisialdi praktikek eta lagun koadrila zabaltzeak izugarritzko eragina izango dute. Gazteak jada heldutasunaren atarian sentitzen dute beraien burua. Batez ere mutilen kasuan, eta Antzuolako testuinguruan, gizonen artean prestigioa duen hizkuntza tratamendua hitanoa da. Beraz, neurri batean gizentasunerako saltoa tokaz aritzearekin lotua egon liteke. Bestetik, esan daiteke espazio publiko eta pribatuaren arteko banaketak ere izan duela eraginik, tokaren sozializazio oso bat eman zedin Antzuolan. Hau da, nahiz eta etxeetan transmisio bertikal bat kasu askotan eten egin den, toka taberna eta lantegi industrialetan mantendu da bizien. Hau da, historikoki esparru publiko maskulinoaren gotorlekuak izan diren espazioetan.

Bestalde, baieztatu liteke hitanoa hein handi batean zakartasun eta baserritartasunarekin lotua izan dela Antzuolan. Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezalaxe. Bestetik, konfiantza, gertutasun eta errespetu falta batekin ere uztatu izan da. Eta honek, hau da, hitanoari lotu izan zaizkion uste eta balio hauek, hizkuntza tratamenduaren erabileran eragina izan dute, batez ere, noketaren galeran zerikusi nabarmena izan dutelarik. Eta baita emakumeen erabilera baxuago batean ere. Zakartasun eta baserritartasun adjektibo hauek, maskulinitate hegemonikoa indartzeko balio lezake, baina feminitatearekin guztizko talka izango lukete. Hala nola, esan liteke errespetuaren kontua, konfiantza eta gertutasunarekin disputa eta tentsioan egongo litzatekeela. Horrela, puntu honetan ere aurki genezake emakume eta gizonen arteko hitano erabileraren aldearen zergatietako bat. Hitanoak eskaintzen duen gertutasuna edota konfiantza, askoren ustez gehiegizkoa litzateke. Hau da, errespetuaren marra gorria pasako luke. Emakumeak eta hauei atxikitzen zaizkien genero rolei jarraiki, moralaren gordetzaileak izan beharko dute. Honen bestez, hizkuntza tresna ona izango da, hitunen arteko distantzia bat markatzeko, eta albokoari errespetuzko jarrera bat gorde, eta gehiegizko konfiantzarik ez transmititzeko.

Eta hori, zukaren eskutik letorke. Bestetik, hitanoak eskaintzen duen gertutasun eta konfiantza hori, egokia litzateke gizonezkoen hain bereizgarri diren anaitasunezko harremanak eraikitzeko. Beraz, hitanoak berez eskaintzen duen konfiantza eta gertutasun honek, gizon eta emakumeen erabileran aldea markatuko luke. Baita honen inguruan, eta hizkuntza sozializazio baten bidez, gehienbat emakumeek barneratu dituzten errespetu marken uste eta pertzepzioek ere.

Baina badirudi, orain hamarkada batzuetako uste eta balio negatibo horiek, atzean utzi dituela hitanoak neurri batean. Gaur egun Antzuolako gazteen artean, neska zein mutilak, nolabaiteko nortasun, pedigree edota euskal "label" batekin lotzen baitute hitanoa. Hala ere, azpimarragarria da "labeltasun" honek, elkarrizketatutako emakume zein gizon gazteenagan sentsazio ezberdinak sortzen dituela aztertu ahal izan da. Ikerketa ildo polita litzateke, sentsazio ezberdinak honen ikerlan bat burutzea, lan honetan sentsazio hau ez baita sakonean aztertu. Nik hipotesi gisara, esan nezake uste dudala genero rolek badutela eraginik "labeltasunaren" nolabaiteko emakumeen errefus honetan. Emakumeak gupidatsuak izan behar dute, eta ez dira munduratu inor baino hobeak izateko. Bestetik, besteengandik ezberdintzearena ere ez da oso femeninoa. Hau da, hitanoak nolabaiteko pedigree hau eskaintzeak ezberdindu egiten zaitu, pertsona berezi egiten zaitu; batzuen begietara eurak baino "autentikoago". Eta sentsazio hori ez doa bat feminitatearekin; oharkabea pasatzearekin.

Amaitzeko eta azken puntu gisara, esan liteke nokarako trantsizioa egin duten emakume gazteek, ahalduntze prozesu bat bizi izan dutela honen poderioz. Hizkuntza ohiturak aldatzea, emakumeei sarri kitatzen zaien agentziaren izugarrizko erakustaldi bat litzateke. Hasierako lotsa eta zeresanak gainditzea ere, izugarrizko asebetetze pertsonalaren seinale litzateke. Azken finean, badirudi egoerari nolabaiteko buelta bat emango lioketela emakume hauek beraien hizkuntza ohiturak aldatuta. Jada emakumeena – gazteena behintzat- ez den hitanoan muturra sartzen dutenean, nolabaiteko boteretze bat emango bailitzateke. Hau da, Antzuolaren kasuan, gizonen artean eta aipatu dugun gisara, badirudi hitanoa – toka- prestigio hizkuntza dela; eta hitanorako saltoa eman duten neska gazte hauek prestigio hizkuntza hori berreskuratzeko jauzia eman dute. Esan liteke beraz, ekintza subalterno baten bidez, boteretu direla. Gaur egun, Antzuolako herriaren errealitate bat da gizonek bi hizkuntza tratamendu dituzten bitartean, emakumezkoek – gehienek- bakarra daukatela. Hori horrela, proposamen bat egitera ausartuz, eta euskalgintza eta feminismoa uztartzen hasi diren garai hauetan, posible litzateke hiketaren suspertzea feministotik etortzea.

4.2 Komunikabideetan agerpenak

Irrati-Telebista:

- ✓ Radio Euskadi
- ✓ Euskadi Irratia
- Info 7 Irratia

Sare Sozialak:

Facebook: www.facebook.com/UIK.cverano.EHU

Twitter: [@UPVeranoEHUdan](https://twitter.com/UPVeranoEHUdan)

Instagram: udaikastaroakehu

Jalgi hadi plazara

Euskara eta genero berdintasuna



[Hasiera](#) » [Euskara](#) » Berreskura ote daiteke hika feminismotik?
Ira13 2

Berreskura ote daiteke hika feminismotik?

Atalak: [Euskara](#), [Gizartea](#)



Miren Artetxek dio noka hiztunen iruditerian bi motatako emakumeak dituela: atso zaharrak eta gaztetxeko neska euskaldun bollerak. Belaunaldi berriek helduko ote diote noka berreskuratzeari? Argazkian Hernaniko Kontrakantxa Gaztetxearen inguruan ibiltzen den gazte kuadrilla. Argazkia: Hernaniko Kronika.

Irailak 11-12. EHUKo Uda Ikastaroak Donostiako Miramar Jauregian. Ikastaroaren izenburua: [Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?](#) Hika galera nabarmenean da. Noka berriaz, are azkarrago ari da desagertzen. Zergatik dira noka hiztunak urriago toka hiztunak baino? Nokaz berjabetzeak balio al dezake emakumeen ahaldunderako? Gizonak eta emakumeak bereizten dituen hitanoa indartzea egokia da binarismo zorrotza leundu behararen ahotsak entzuten diren garai honetan?

Beñat Muguruzak zuzendu zuen ikastaroa eta Garbiñe Bereziartua laguntzaile izan zuen. Ausardiaz jokatu zuten egun eta erdiko ikastaroa gai horren gainean antolatuta, kontuan hartzen badugu ikastaroan parte hartu zuten hizlariak beraiek aitortu zutela euskara eta generoaz literatura sendorik ez dugula Euskal Herrian. Euskara eta generoaz teorizazio gutxi badago, hitanoaz eta generoaz are gutxiago. Ikastaroan gaiak ikasteko eta gogoetatzeko egarria antzeman zen. Ziurrenik antolatzaileek espero zuten moduan, haiek egindako galderak erantzun beharrean galdera gehiago sortu ziren. Eztabaida mahai gainean dago.

Zergatik toka noka baino erabiliago?

Argi geratu zen genero rolek eragina izan dutela tokaren biziraupenean eta nokaren galeran. Besteak beste Antzuolan, Arratia bailaran eta Azpeitian egindako ikerketa lanen emaitzek arrazoi oso antzekoak biltzen dituzte. Nokak halako etiketak izan ditu (gaur egun ia erabat eroriak): zakarra, zatarra, baserrikkoa, mari mutilena, bortitza, gizon plantak egitekoa, harrotutakoan erabiltzekoa, baita bekatur ere. Tokak ere motxilan eraman ditu horietako etiketa batzuk, baina ez da gauza bera bide zuzenetik emakumea ateratzea edo gizona. Gizonak beti askeago. Zein onura ekar diezaiokeen emakumeari noka erabiltzeak halako ospea bazuen hizkerak? Moralaren gordetzailerik izendatuak, alegia emakumeak, ihes egingo zion noka erabiltzeari. Estatus gutxikotzat ere bazuten hika, eta ohiko jarrera izan da hizkuntza gutxituetako emakumeek botere gabeziari aurre egiteko bigarren mailako hizkuntza alboratu eta hizkuntza menderatzaileari heltzea. Euskara alboratu eta gaztelaniari eutsi, edo noka baztertu eta zuka erabili. Bestalde, tokak eremu publikoa izan du eskura, gizona plazan ibili baita toka hitzetik hortzera. Aldiz, emakumeak eremu pribatura mugatuak izan dira, eta noka ere bai ondorioz.

Nokaz berjabetu nahian

Ikastaroan aurkeztutako hainbat ikerketa lanetan ageri da nola tokak gizon gazteei nortasuna osatzeko balio dien. Elkarriketatutako mutil gazteek hala aitortu dute: elkarren arteko kidetasuna, konplizitatea, haurretik nerabezarorako pausoan gizentasunaren giltza... Azpeitian eta Antzuolan adibidez, tokak badu prestigioa eta balioa mutil gazteen artean.

Nokak ez du halako funtziorik betetzen, nahiz eta gaur egun ez duen duela gutxi aipatu dugun ospe txarrik. Nokaren berjabetzeaz hitz egin da ikastaroan eta haxe galdera: hikaren berreskurapena egin al daiteke feminismotik? Eta galdera beharrean eskakizuna: mugimendu feministak esku hartu beharko luke prozesu honetan. Beñat Muguruzak bere ikerketa lanean hainbat bertsolari elkarriketatu zituen, eta hitanoaz eta generoaz aritu ziren, besteak beste. Miren Artetxe bertsolariak noka hiztunak duen iruditeriak iradoki dezake berjabetze prozesua, oso xumea eta urria bada ere, lantzen hasiak direla hainbat feminista. Artetxek noka hiztun mota bi ditu buruan: atso zaharrak eta gaztetxeko neska euskaldun bollerak. Elixabet Pagolak zuka egin du 18 urteak arte, nahiz eta gurasoek hika egin berari. Bost urte geroago hainbatekin hika egiten hasi da, bai noka eta bai toka. Hernanin, bost eguneko esperientzia xumea antolatu zuten berak eta bere lagun batek. Noka ikastaroari heldu zioten, emakumeentzat

ahalduntze ariketa gisa aurkeztuta. Pagolak emakumeek noka ikasteko eta erabiltzeko grina du, baina beharrezkoa iruditzen zaio gizonen emakumeei noka egitea bultzatzea ere. Izan ere, gero eta mutil gutxiagok egiten diete emakumeei noka, arrazoiak arrazoi. Alabaina, ondorioa da tokak bereak diren eta ez diren erabilera guneak hartu eta orokortzen ari dela.

Queer garaian hitanoa?

Amelia Barquínek egin zituen zirikatzaile lanak. Feminista gazteak noka berjabetzeko ahaleginetan eta bera aldiz queer filosofia aldean hartuta. Barquínen ustez, genero bereizketa zorrozten ari da azkenaldian, binarismoa muturrera darama gizarte honek. Hitanoak berriz, genero marka dauka. Nola jokatu? Barquínen iritziz, kontua ez da hizkera neutroaren bila hastea baizik eta bidea irekitzea, umeei nahi edo ahal dutena egiten uztea adibidez. Hikak arau sozialak ditu eta ziurrenik arau berriak finkatu beharko dira. Artikuluaren hasieran esan dugun moduan ikastaroan erantzun eta baieztapen sendoak baino galderak jarri dira mahai gainean. Barquínenak dira ondokoak: hitanoa egin daiteke ez bitarra ala ez dago ihesbiderik? Nola erabili hitanoa bere burua binario izan nahi ez duenarentzat? Gizonak prest daude beraiei noka egiteko? Ildo beretik, Elixabet Pagolak beste hainbat galdera egin ditu: neutroa aukeratuko dugu? Toka aukeratuko dugu denentzat? Edo noka? Bakoitzari galdetuko diogu nola nahi duen? Jaime Altunak ere galdera gehiago ditu: Judith Butlerrek [queer teorian filosofo aditua] dio binarismo zorrotza leundu behar dela, ez alde batean ez bestean direnen sufrimendua arindu ahal izateko. Arintze horretan balia dezakegu hitanoa? Tokaren erabilera murriztu behar dugu? Noka indartu behar dugu? Noka denontzako erabiltzeko aukeratu behar dugu? Kafe-garaian aipatu da agian hurrengo urtean bigarren ikastaroa antolatzea komeni dela, hain gutxi landutako gaiari jarraipena emateko. Segituan iritzia aldatu eta epe handiagoa hartzekotan geratu dira. Gaiaz egindako lanak biltzeko, ikastaroan esandakoak digeritzeko eta gogoeta gehiago sortzeko tarteak hartuko dute.

2 Iruzkin



1. Mikel Basabe Kortabarria | [2018 iraila 13 at 14:28](#)

Norbaitek hika egiten badink, eta hik horrekin arazorik ez badaukank, elkarrekin hika. (Baina horretarako, jakin egin behar). Binario izan gura ez dun/alako, edo hika maite ez badunk, edo... esaionk hiri 'zu' egiteko, eta hala egionk heuk ere bai. Azken finean, hika biren arteko harremanerako baino ez dunk, eta guk libre adostutako harremanak gura ditin/agu: hi, zu nahiz berorri. Baina ez dakiguna, ezin erabili.

[Reply](#)



2. Aitor | [2018 iraila 20 at 17:20](#)

Binarismo zorrotzak binarismo itxia esan nahi badu, anti-binarismo itxia bezain txarra iuditzen zait. Arazoa ez da binarismoa, itxikeria baizik. Noka atso zaharrekin eta gaztetxetakoneska euskaldun boilekin lotzen duenak arazo nagusia bere buruan duela iruditzen zait, besteak beste toka ez baita mutilen arteko hitanoa, ez eta noka nesken artekoa ere. Bestalde, nik dakidala, feminismoa ez dago genero bereizketaren aurka. Hori feminista batzuren ildo da. Beste batzuok pentsatzen dugu feminismoak ez duela berdintasuna bilatu behar, eskubide berdintasun edo parekidetasuna baizik. Gauza oso ezberdinak dira. Binarismoak ez du zertan arazo izan behar, binarismo irekia bada. Hau da, lekua izan behar du ez eme eta ez ar sentitzen direnentzat, baina katu ala txakur sentitzen direnentzat eta beste milaka kasu ezberdinetarako hizkuntza modu irekian erabili behar den bezala.

[Reply](#)

Iruzkina idatzi

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude

Izena *

E-posta *

Webgunea

This site uses Akismet to reduce spam. [Learn how your comment data is processed.](#)

Onintza Irureta Azkune

Euskara kontuak ditut hizpide Argia aldizkarian, eta blog honetan ere, euskara etengabe plazara atera dadin saiatuko naiz. Betaurreko matxistak erantzten ere saiatuko naiz eta emakumea txokotik plazara ekartzeko ahalegina egingo dut.

@oirureta Twitterren

Zumaiako eta Azpeitiko hitanoa izan dira gaur hizpide EHUKo udako ikastaro batean

Baleike 2018-09-12 16:37 [Euskara](#)

Zumaiako eta Azpeitiko hitanoa eskolan lantzeko egitasmoa azaldu dute gaur Donostian egindako EHUKo udako ikastaro batean. Soziolinguista Klusterreko bi teknikari azaldu dute egitasmoa Miramar jauregian egindako saioan: Josune Zabalak eta Olatz Bengoetxeak hain zuzen ere.



Argazkia: Soziolinguistika klusterra | [Ikusi handiago](#) | [Argazki originala](#)

2009an hasi ziren gaia lantzen, Zumaiako Udalaren enkarguz. Materiala elkarlanean osatu dute, eta irakasleek ere parte hartze handia izan dute, edukiak gelaren eta haurren ezaugarrietara egoki behar izan dituztelako.

Azpeitiak ere interesa agertu zuen proiektu pilotu honekin, eta eduki batzuk bietarako landu dituzte, herri bakoitzerako egokituta.

Lehen Hezkuntzako 5. mailatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara bitarte ematen da ikastetxeetan. Hamabi material didaktiko dira, maila bakoitzeko bi, eta herri bakoitzeko hitanoaren erabilera soziala aztertzen da, besteak beste. Soziolinguistika Klusterrarekin batera egiten ari zaio jarraipena programari.



Noticias de futbol total!!
Real Madrid, Barça, Sevilla

Entra y lee ahora

Gipuzkoa | Alto Urola | Alto Deba | Bajo Deba | Bidasoa | Buruntzaldea | Costa Urola | Oarsoaldea | San Sebastián | Tolosa Goierri

Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?



EHUko udako ikastaroan, genero-ikuspegitik helduko diote hitanoaren gaiari irailaren 11 eta 12an Donostiako Miramar jauregian

Martes, 4 septiembre 2018, 11:56

0 f t w X

G+ in

Hitanoa da euskararen tratamendu informala, berdinen artean eta goitik beherako harremanetan erabili ohi dena. Sexu-generoaren arabera bereizketa da hitanoaren bereizgarri nagusietako bat, eta emakumeari edo gizonari egin, aldatu egiten dira aditz-formak. Azken hamarkada hauetan behera egin du nabarmen hitanoak; gizonezkoen artean toka (gizonezkoei egiten zaien hika-modua) egitea Euskal Herriko txoko askotan oraindik ohikoa bada ere, bai emakumeek hika egitea bai emakumeei hika egitea gero eta gutxiago aditzen den fenomeno da.

'Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?' EHUko udako ikastaroan, genero-ikuspegitik helduko diote hitanoaren gaiari **irailaren 11 eta 12an**, Donostiako Miramar jauregian. Beñat Muguruzak zuzenduko du ikastaroa, eta bertan, alde batetik, **nokaren** (emakumeei egiten zaien hika-modua) **galeraren** inguruan ariko dira, aztertuz zer konnotazio duen trataera bakoitzak, eta horri lotuta zergatik mantendu den senda xamar gizonen artean, eta ia desagertu emakumeen artean.

PUBLICIDAD

Lo + leído

El Diario Vasco

Gipuzkoa

Top 50

- 1 El alcalde de San Sebastián llama al orden a Iberia
- 2 Taxistas de Errenteria defienden al chófer que no trasladó a la mujer que parió en la calle
- 3 «Tengo coche comprado y extrema necesidad de usarlo, pero llevo un año para sacarme el carné»
- 4 Más de 2.000 guipuzcoanos afectados por la falta de examinadores para el carné de conducir
- 5 El Gobierno Vasco da el primer paso para integrar Onkologikoa en Osakidetza

El Desmarque

Noticias de futbol total!!
Real Madrid, Barça, Sevilla

Entra y lee ahora



Bestetik, aztergai izango dute nola «nokaren ikusgarritasun faltak» maiz eramaten ditu gizonak (batzuetan emakumeak ere bai) emakumezkoei toka egitera, gizonak izango balira bezala, antolatzaileek azaldu dutenez. «Emakume askok, bistan da, ez dute gustuko haiei gizonak izango balira bezala zuzentzea». Azkenik, gero eta gehiago direnez genero-binarismoa gainditu eta ikuspuntu horretatik jendarte anitzago baten alde borrokan ari direnak, **hitanoak zer paper jokatzen duen XXI. mendean eztabaidatuko dute**, sexu-generoak bitan hain argi bereizten dituen hitanoa eta 'emakume' edo 'gizon' etiketapean sailkatzen ez duten lagunen arteko harremanen inguruan.

Hitanoaren kale-erabilera

Olatz Altuna eta Garbiñe Bereziartuak emango diote hasiera ikastaroari. Olatz Altunak koordinatu du berriki, Soziolinguistika Klusterraren baitan, inoiz egin diren lehenengo hitanoaren kale-erabilera neurketak, Usurbilen eta Azpeitian. Erabilitako eta metodologiaren eta emaitzen berri emango digu. Ildo beretik, Bereziartuak azalduko digu Azpeitian egiten ari diren ikerketa, zeinetan Azpeitiko 1.500 herritar ingururen hitanoaren erabilera, iritzi, ikuspegi eta desirak jaso dituzten. Bereziartuaren ikerketa-taldeak, herrian diagnostiko sakona egin ondoren, **hitanoa biziberritzeko egitasmoa** diseinatu du Azpeitian.

Bertsolaritza eta hitanoaren arteko harremanei begiratuko die Beñat Muguruzak. Emakumeek hika oro har gutxiago egitea bertsotan nola islatzen den aztertuko du hitzaldi horretan.

Ondoren, Karlos Aretxabaleta eta Onintza Legorburuk hartuko dute hitza. Aretxabaletak Arratiara (Bizkaia) jo zuen bere ikerketa egitera, bailarako **noketaren galerak** atentzioa eman baitzion. **Arratiako zenbait herritako biztanleekin** hitz egin du, beherakada horren atzean egon litezkeen zergatiak bilatzeko. Legorburuk, berriz, **Antzuolan** kokatu du bere ikerketa. **Toka eta nokaren erabileraren artean zer alde dagoen aztertu du**, zergatik eman den hori, eta nola sentitzen den diren herritarrak. Behaketen eta elkarrizketa sakonen bidez lortu ditu emaitzok, eta genero aldetik hausnartzeko parada emango digute.

Arratsaldean mahai-inguruaren txanda izango da. Josune Zabalak moderatuko du, eta bi aurpegi ezagunek mahaigaineratuko dituzte haien iritziak. Batetik, Mondragon Unibertsitateko Amelia Barquín irakasle eta ikertzailea izango dugu. Barquínek **euskararen erabilera ez-sexista** urte luzez landu du, eta **genero-aniztasunaren eta binarismoren gainean** ikertutakoa da. Bestetik, Bernardo Atxaga idazlea ere izango da jardunaldian, eta hitanoarekin izan dituen bizipen eta pentsamenduak izango ditu hizpide.

Hizkuntza neutralaren bila

Hurrengo goizean, Josune Zabala eta Olatz Bengoetxeak hartuko dute hitza. 2011n hasi zen Soziolinguistika Klusterra Azpeitia eta Zumaiaiko **eskoletan hika erabiltzeko unitate didaktikoa** diseinatzeko, eta Zabala eta Bengoetxea izan ziren egitasmoaren arduradunak. Azalduko digute unitate didaktikoak genero-ikuspegitik nola landu zituzten, eta bidean izandako zalantzen gainean eztabaidatuko dute. Ondoren, Jone Miren Hernández, Jaime Altuna eta Iñigo Beitiaren txanda izango da. EHUko ikertzaile horiek euskararen eta generoaren gainean ikertzen dihardute, hizkuntzaren neutraltasuna zalantzan jarritz, eta euskarak generoa noiz eta nola markatzen duen erakutsiz.

Eli Pagola eta Andoni Egañak itxiko dute ikastaroa. Biak bertsolariak dira, baina Pagolak, batez ere, Hernanin antolatu zuten noka-ikastaroari buruz hitz egingo du. **Emakumearen ahalduntzea** zuen jomuga ikastaro horrek, eta ideia nondik etorri zen azalduko digu, baita eskolek emandakoen berri emango ere. Egañak hitanoa izango du hizpide, noski, bai bertsotan bai bertso-munduan. Emakumezkoekin eta gizonezkoekin izandako bizipenak plazaratzeko aukera izango du, eta debatea irekiko digu bi hizlariekin, eta ikus-entzuleek ere parte hartzeko aukera izango dute.

Antolatzaileek adierazi dute jardunaldiarekin ez dutela espero irtenbiderik topatzea «hitanoaren eta generoaren arteko auzi konplexuari, baina egungo egoera ondo ezagutu eta horren gainean gogoeta egiteko aukera eskainiko» dutela, «zalantzarik gabe».

SELECTED
STREETWEAR
AND
EXCLUSIVE
DROPS

Bread
&
Butter
by zalando

GET IT

ANTZUOLA

Antzuolako hitanoari buruzko azterketa kaleratuko du Donostian Onintza Legorburuk

:: JOSEBA LEZETA

ANTZUOLA. Onintza Legorburuk datorren asteko martitzen eta eguaztenean Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaro batean parte hartuko du Donostiako Miramar jauregian. 'Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa' gaia landuko dute hamalau hizlarik eta Ugarte-Torre base-rriko antzuolarra da haietako bat.

Tokak (gizonezkoei egiten zaien hika-modua) eta nokak (emakumeei egiten zaiena) Antzuolan duten erabileraren artean zer alde dagoen aztertu du Legorburuk. Zergatik eman den hori eta herritarrek nola ikusten duten azalduko du ikastaroan. Behaketa eta elkarrizketen bidez lortu ditu emaitzak eta genero ikuspegitik hausnarketa egiteko aukera emango dute.

2018ko irailaren 22a | XII. urtea • 587. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



HITANOAK, GALDERAK ETA ERRONKAK

HITANOAREN BAITAN NOKAK ETA TOKAK EZ DUTE OSASUN BERA; AZKEN HORI GAILENTZEN ZAIO LEHENARI. HORREN ATZEAN EGON DAITEZKEEN ARRAZOEIEZ ETA GENEROAK AUZITAN DAUDEN GARAIOTAN ZER-NOLAKO HIZKUNTZA ERAIKI NAHI (ETA BEHAR) DUGUN HAUSNARTZEN DIHARDUTE ADITUEK. ► 12 Juanan RUIZ | FOKU

HITANOAK, ATETXO HANDIA

Aberastasuna den edo zantzu sexistak dituen ikertzaileen ahotan eztabaidagai

📁 EUSKARA / Oihane Larretxea de la Granja

Hitanoaren baitan tokak eta nokak duten espazioaren eta jokatzaren paperaz luze mintzatu dira mahaiaren bueltan hainbat ikerlari udako ikastaroetan Donostian. Binarismo zorrotza zalantzan jartzen den garaioan, nola jokatu hizkera honen aurrean? Ba al dago zer moldatu? Galderak ez dira makalak, ezta erronkak ere.

Robin Lakoff linguista estatubatuarrek ezarri zituen, 1975ean, soziolinguistika feministaren oinarriak. Bere hipotesi nagusiaren arabera, emakumezkoek eta gizonezkoek hitz egiteko modu ezberdinak dituzte. «Genero sistemaren» baitan kokatzen zuen fenomenoak, eta gizartearen eta sozializazioaren pisua aipatzen zituen. Horrela aritzera daude bideratuta sexu bat zein bestea.

«Hizkuntza txanpon bat da», dio Euskal Herriko Unibertsitatean Gizarte Antropologia irakaslea den Jone Miren Hernandezek. «Hizkuntza tresna bezala erabil daiteke, sortzailea da. Gizakiok eragiteko duguna da, eta botere performatzailea du». Adibide bat jarri du mahai gainean: «'Mutilek ez dute negarrik egiten'. Horrek efektu batzuk ditu»,

Hitanoaren baitan, tokak eta nokak ez dute osasun bera; azken horren ezagutza eza nagusi da. «Gizarte justu baten ikuspegitik, nolako hitanoa beharko genuke?», planteatzen dute

Hitanoak etengabe gogoratzen dizu neska edo mutila zaren, nahiz gaiarekin zerikusirik ez izan. Beren burua kategoria horietatik at sentitzen dutenez oroitzen da Jaime Altuna

baieztatu du. Baina hizkuntzak, aldi berean, gizarte elementu ezberdinak ditu txertatuta, tartean genero sistema. «Ez dago ondo ikusia neskek biraoak erabiltzea», aipatu du eredu gisa. Bere ustez, «hitanoak oso ondo biltzen ditu txanponaren bi aldeak».

Egin duen ikerketa zabalean, hizkuntzari dagokionez behintzat, euskal emakumeak nagusiki bitartekari gisa agertu dira dio Hernandezek, alegia, transmisio lanetan. «Inoiz ez sortzaile edo ordezkari gisa». «Naturalizat» jotzen da, gainera, emakumezkoen gaitasuna hizkuntzak ikasteko, umetan hizketan hasteko, hizkuntzen irakaskuntzarako... «Ama-hizkuntza» vs «plaza gizona» kontzeptuak jartzen ditu aurrez aurre. Edozein kasutan, eta egile batzuk sostengatzen dutena berreskuratuz, azken urteotan euskararen «feminizazioa» nabarmena gertatu dela dio, datuek behintzat baieztatzen hori berresten dutela uste du.

Jaime Altuna antropologoa-ekin batera, besteak beste, hartu du parte Hernandezek Euskal Herriko Unibertsitateak Miramar jauregian «Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?» izenburupean antolatutako duen udako ikastaroan. Altunak ere sostengatzen du

Ezker-eskuin, Jone Miren Hernandez, Jaime Altuna, Andoni Egaña, Iñigo Beitia eta Elixabet Pagola, Donostiako Miramar jauregian.
Gorka RUBIO | FOKU

hizkuntza eta hitza «gizarte egituraren isla» direla, baina baita gizartearen eragile ere. Hitanoa, hizkuntzaren parte den aldetik, beste hainbeste. Galdera edo baieztapena?

NOLAKO HITANOAK ERAIKI

«Hitanoaren barruan, tokak eta nokak duten osasuna ez da bera», dio Altunak. Adibidez, gazteen artean «nokaren eza-gutza eza» orokorra dela azaldu du. Hori baino lehenago, ordea, galdera bat jarri du mahaiaren gainean: «Nola definitu nahi dugu hitanoaren erabilera?». Hau da, «gizarte justu baten ikuspegitik, nolako hitanoa beharko genuke?», galdegina du aretoan.

«Kidetasun» alderdia aipatu du lehenik. Bere erabilerak «adiskidetasuna» adierazten duen aldetik, ahoko hizkuntza ez formala zabaltzeko bide egokia izan daiteke; aitzitik, hainbat ikertzailek baieztatzen dutenez, «kidetasun» hori bereziki mutilen artean ematen da. «Bi aukera ditugu –dio Altunak Lakoffek berak proposatutakoa oroitzuz–: mutilen arteko lotura beharra murriztu edo emakumeen artekoa, oro har, pertsona guztien arteko lotura, sustatu».

Botere alderdia, bestetik, errespetuarekin lotu badaiteke ere, «estatusa» markatzea-



IÑIGO BEITIA

«Hitanoa hiztun berriak badira: laguna da erreferentzia, elkarri entzunez ikasten dute»






JONE MIREN HERNANDEZ
«Hizkuntza txanpon bat da. Tresna bezala erabil daiteke eta gizarte elementuak ditu txertatuta»



ANDONI EGAÑA
«Bertsotan rolak esajeratzeko balio izan dute bi kodeek, eta sexistak izan gara, onartzen dut»



ELIXABET PAGOLA
«Gazteleran 'e' sartzen ari da, 'nosotres' esateko, kasu. Hitanoan horri bide motza ikusten diot»



JAIME ALTUNA
«Generoak desagertzea zientzia fikzioa da, baina binarismo hegemonikoa arindu daiteke»

rekin lotzen da. «Modu justu bat eratzeko» arau horiek mantendu edo aldatu beharko liratekeen hausnartzea planteatzean du.

Eta azkenik binarismo zorrotza. «Nola jokatu hain banaketa binarioa performatzan duen hizkeraren aurrean?». Kasu horretan Judith Butler filosofoa ekartzen du gogora. «Kontua ez da genero kategoriak guztiz desagerraraztea, hori zientzia-fikzioa da, baizik eta binarismo normatibo hegemonikoa arintzea». Hala, moldatu al daiteke hitanoa?

«Binarismo zorrotza zalan-tzan jartzen ari den garaiotan, nola jokatu hizkera honen aurrean?», galdegiten du Altunak. Bere ustez, hitanoak «etengabe» gogorarazten dizu neska edo mutila zaren, «nahiz eta hitz egiten ari zaren gaiarekin zerikusirik ez izan. Gazteleraz etengabe 'tú, chica', 'tú, chico' ariko bagina bezala». Gainera, beren burua «kategoria horietan sartzen ez duten pertsonak» gogoratzen ditu. Haien sufrimendua ere aipatzen du.

EREMU PUBLIKOA ETA PRIBATUA

Iñigo Beitia Zabalak hika eta gazteak gai hartuta egin zuen gradu amaierako lana. Eskoriatzarrak, antropologian graduatua, jaioterriko gazteek hitanoarekin duten harremana ikertu zuen. Miramar jauregian ere izan da bere ahotza entzuteko parada.

Altunaren baieztapen bera egiten du: gazteen artean no-karen ezagutza ahuldurik dago. «Beharbada –dio– beren bizitzetan tratamendu honekiko figura gutxi izan dituztelako». Gainera, etxeko transmisioan, jendartearen, hedabideetan... oso bisibilitate txikia izan du. «Espazio publikoan erreferenteak ez egoteak ere eragina izan du».





Bere hausnarketak egin ditu eta, zera uste du: kalean noka erabiltzen duten emakumeek beren zirkulu pribatueta mugatu dutela; kafean, tertulian, meza osteko berriketan... «Beraz, tokak gizonen bitartez espazio publikoa eta kaleak hartu dituen bitartean, txikiteoan adibidez, noka espazio pribatuan gelditu da. Eta kaleko galerari etxeko galera gehitu behar zaio. Hori, aldi berean, hikaren galera orokorrean txertatuz».

Beste hipotesi bat du Beitiak: gazteen artean toka neutroa bezala erabiltzen dute hala hartzten dutelako? «Mutil askok neskekin hitanoa gutxi erabiltzen badute ere, erabiltzen duten apurra toka da. Ez jakintasanagatik edo toka neutro gisa ikusteagatik. Eta esango nuke neska batzuek hika erabili behar izanez gero, tokara joko luketela. Ez lukete txarto hartuko».

Eta beste galdera bat mahai gainean. «Nokaren bisibilitate ezak tokaren neutraltasuna bultzatu al du?», bota du. Kontatu duenez, ikerketa egiten ari zela, gazte batek esan zion ez zuela zeinekin noka egin. «Eta gazte horrek kuadrillan neskak ditu, eta arreba ere badi. Berez, irizpideak eta baldintza objektiboak baditu. Beharbada nesken eta mutilen arteko harremanek ere beren eragina izango dute erabileran...».

Tokak gizonen bitartez espazio publikoa eta kaleak hartu dituen bitartean, noka espazio pribatuan gelditu da. Hala, kaleko galerari etxeko galera gehitzen zaio nokari

Emakumeen artean hiltun solaskidearekin kideatasuna edukitzea ez da nahikoa hitanoa erabiltzeko. Gutxiengo kideatasun hori mutilek askoz azkarrago hartzen dute antza

Eskoriatzarrak erreferente izan du ikerketa lanetan Xabier Alberdi EHUKo irakaslea. Berak hiru hutsune aipatzen ditu nokaren galeran: eremuzkoa, batzuetan erabiltzen dute emakumeek, besteetan ez; adinezkoa, gazteek erabili ez baina helduek bai; eta sexuzkoa, emakumeek beren artean bai baino gizonekin ez. «Horri, gainera, euskalki bakoitzean dauden ohiturak gehitu behar dira», dio.

Beste hipotesi bat gehitzen du: emakumeen artean hiltun solaskidearekin kideatasuna edukitzea ez da nahikoa hitanoa erabiltzeko. «Adiskide izatea ez da derrigorrezko baldintza hikan aritzeko, baina gutxiengo kideatasuna behar da», gogoratu du Beitiak. «Bardirudi -jarraitu du- gutxiengo kideatasun hori mutilek askoz azkarrago hartzen dutela. Parekoa sexu berekoa bada, gutxiengo kideatasuna hartzen dute, eta, emakumeek, aldiz, hitano solaskidea hautatzeko, antza baldintza gehiago jartzen dizkiote». Alberdik dio «kontuzago» hautatzen dutela hitano solaskidea.

Arauk urratzen, eta botere harremanak hausten apurka. Gazteek gaur egun ondo ikusten dute inoiz guraso badira, seme-alabei hitanoz egitea. Erronka, berresten dutenez, nolako hitanoa nahi-behar dugun galdera konplexuari egoki erantzutea da.

OHOLTZATIK KANPO BAKARRIK... EDO BAITA GAINEAN ERE?

Bertsolaritzak eta, horrenbestez oholtzak, bere kode propioak ditu. Arauak, metrikak eta errimak. Horretan kapidarik ba al du hitanoak? Galdera horri erantzuten saiatu ziren Andoni Egaña eta Elixabet Pagola. Iritziak iritzi, eta aukerak aukera, erronka litzatekeela ez dute ezkututzen, baina, jakina, bere zailtasunak, eta ez edonolakoak, izango litzukeela ere

aitortzen dute. Aitzitik, sormenaren zirikatzaile ona izan daitekeela bota zuen Egaña. «Eta hori inoiz ez da gauza txarra».

Gauza bitxia da oholtzak irudikatzen duen itsasertza. Handik kanpo «gure artean hika erabili ohi dugu»; bertan zergatik ez? «Gutxi entzuten da hika, eta ez luke hala izan beharko. Bertsogintza jardun herrikoia da, temako jarduna da, eta gainera





bertsolari gehienok elkarri hikaz hitz egiten diogu oholtzaz behera».

Oholtza gainean egiten dutenaren «%1-%2 bakarrik» egiten dute hikaz, aipatu duenez. «Eta bada kontraesana». Baina Egañak hainbat arrazoi maneiatzen ditu, bereziki mikrofonoak berak duen pisuagatik. «Publikoari begira egiten dugu bertsotan, haiek egiten dute galbahe lana eta zuka ateratzen da. Zuen bitartez esaten dizkiot sekulakoak, goxoak zein ozpinak, Eliri –bota du adibide gisa–. Eta uste dut horregatik dela». Mikrofonoak, bereziki lurrean hankaz eusten denak, oholtzara eusten ditu bertsolariak, eta parez pare begiratzen derrigortzen ditu,

kideari beharrean. Gauza bitxia gertatzen da, baina, dio Egañak, bertsolariak bere buruari kantuan egiten dionean. Orduan bai baliatzen du hika. Lazkao Txikik ispiluaren aurrean bota zuen bertsoa gogora ekarri du. «Aizak nik hiri bota behar dit bertso koxkor bat edo bi,/ behingoan jarri geranez gero, biok aurpegiz aurpegi/ neri begira hortik daduzkat alperrikako bi begi,/ hik ez nauk noski ni ikusiko, baina nik ikusten haut hi. (...)».

1980ko eta 1982ko bertsolaritza txapelketetan Xabier Amurizak hikaz aritzeko ahalegina egin zuela gogoratu du Egañak, eta saio batean Amuriza eta Lazkano horrela aritu

zirela, gaia hikaz jarri zitzaielako. Ideia ere bota du: etorkizuneko bertsolaritzak ea nola erantzungo lioken gaiak horrela proposatzeari...

NOIZ GEHITZEN DUEN ETA NOIZ KENDU

Elixabetek «zailtasunak» ikusten dizkio auziari. «Ez dut zuka bezain ondo kontrolatzen erregistroa. Zukaz kantatzen ikasi dut, eta bertsotarako gauza asko pentsatu behar dira, indar handia gal daiteke bat-batekoa den saiorako. Hizkuntza menperatzea ezinbestekoa da», argudiatu du.

Baina ez dute erabat baztertzen, erregistro jakin honek behar zehatzak asetzen dituelako. Hor sartzen da «sinesgarritasuna». «Andoniri amona

Anttoniren papera ematen badiote, nokaz egiteak sinesgarritasuna emango lioke, erabat. Kasu horretan, dudarik gabe, hikak balio du. Baina oholtzara ez goaz jolastera, esperimentatzera esan nahi dut. Konpromiso bat duzu eta erantzun egin behar zaio horri. Ez da momentua hikarekin probatzen hasteko», uste du hernaniarrak.

Eskarmentu propiotik hitz eginez, Egañak dio hikaz bertsotan egiteak metrika «deskontrolatu» egiten duela, baita dituen «automatismoak» ere. «Bereziki gauza batek kezkatzen nau: jakiteak hika egiteak noiz gehitzen duen eta noiz ez. Menorrekono tonuetan hobeto doa, maiorretan krak egiten dit belarrira».

Eta zer diote tokak/nokak izan dezakeen (edo ez) tendentzia sexistaz? «Egia da hikaz aritu izan naizenetan batzuetan uste erroto sexistak batetik aritu izan naizela. Egia da. Rolak esajeratzeko balio izan dute bi kodeek, eta sexistak izan gara, onartzen dut». Adibide bezala jartzen ditu labe garaietako bi langile, gizonezkoak noski, eta bi amona balkoian berriketan herriko festetan. Lehengo kasuan ez dute hika erabiltzen; bigarrenean, berriz, bai. «Eta tranpa da, bi langileek ere egin dezaketelako hika, bi amonek noka bezala».

Oholtzatik kanpo jarri du arreta Pagolak. «Generoa puri-purian dagoen honetan, gaztelean 'e' sartzen ari da, 'nosotres' adibidez. Hitanoan horri oso bide motza ikusten diot, mugak dituelako. 'Dizkiat'/'dizkinat'. A, eta neutroa zein da? Hor beste zerbait behar da edo horrek ez du balio behintzat. Denentzat toka edo denentzat noka... eta gero ikusiko da bidea duten edo ez. Erabilerak markatuko du sexistak diren edo ez, zer balore transmititzen diren, eta zer forma hartzen duten». Elkarrizketa hasieran generoa galdetzeko ohitura hartzea beste aukera gisa aipatzen du.

Kalean ere izan ditu esperientziak, hausnarketara bultzatu dutenak. «Hikaz ari dira, baina zu agertzen zara eta zukaz hasten dira. Ez dakit zein punturaino den umiliazioa edo haien ahulezia... Zalantzak sortzen zaizkit».



Nokak eta tokak bertsolaritzarekin duten harremanak badu mamia. Ez da ohikoena hitanoa erabiltzea, baina noiz edo noiz entzuten da oholtza gainean.
Juan Carlos RUIZ | FOKU



Irudiak Bideoak Txokoa Zorion Agurrak Eskelak Zerbitzuak Harpidetza

UROLA KOSTAKO HITZA

BILATU

GAIAK HERRIAK PAPERKOA MULTIMEDIA IRITZIA JAIK AGENDA

AIZARNAZABAL | AZKOITIA | AIA | AZPEITIA | BEIZAMA | ERREZIL | GETARIA | ORIO | ZUMAIA | ZESTOA | ZARAUTZ

Nork: [Urola Kostako Hitza](#) -Abu 31, 2018

HARA! GARBIÑE BEREZIARTUAK HITANOAREN EGOERA IZAN DU HIZPIDE INFO7 IRRATIAN



Garbiñe Bereziartua. (Uztarria.eus)

Azpeitian hitanoaren egoera zer nolakoa den aztertzen ari dira Garbiñe Bereziartua azpeitiarra eta Beñat Muguruza irundarra. Gaia, gainera, EHUren udako jardunaldietan jorratuko dute, irailaren 11an eta 12an, *Hitanoa eta generoa: Aberastasuna ala sexismoa* izenburupean. Gai horren inguruan hitz egin du Bereziartuak Info7 irratiako Karelean saioan. Besteak beste, honako galdera hau egin du: "Izan al daiteke hitanoa emakumeak boteretzeko tresna bat, sexismoaren aurrean?".

[Lotura honetan](#) entzun daiteke irratsaioa osorik.



AZPEITIA EUSKARA GARBIÑE BEREZIARTUA HARA! HITANOA INFO7 IRRATIA

Ez dago iruzkinik

UTZI IRUZKIN BAT



BUFFALO TALDEAK 'ULU' DISKOA AURKEZTUKO DU HILAREN 18AN, AZPEITIAN

Gonbidapenak

Ikusi al dituzu Guggenheimeko erakusketa berriak?



Lotutakoak

ETIKETAK

ATALAK

EGILEAK



Buffalo taldeak 'Ulu' diskoa

...
Nork: [Urola Kostako Hitza](#) - Aza 8, 2018
Azpeitia



Joxe Mari Iriondoren "ibilbide prof ..."

Nork: [Urola Kostako Hitza](#) - Aza 8, 2018
Azpeitia



Kamisetak

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publikitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu.

Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#)

Onartu

2018/09/22

HERRIA

ERREPORTAJEA
HITANOAK, ATETXO HANDIA

ABERASTASUNA DEN EDO ZANTZU SEXISTAK DITUEN IKERTZAILEEN AHOTAN EZTABAIDAGAI

Hitanoaren baitan tokak eta nokak duten espazioaren eta jokatzeko duten paperaz luze mintzatu dira mahaiaren bueltan hainbat ikerlari udako ikastaroetan Donostian. Binarismo zorrotza zalantzan jartzen den garaioan, nola jokatu hizkera honen aurrean? Ba al dago zer moldatu? Galderak ez dira makalak, ezta erronkak ere.

OIHANE LARRETxea DE LA GRANJA

INPRIMATU

BIDALI

18

22



Mitamaren hitanoak hausnartzen jardun duen taldea. Gorka Rubi/Foku

Robin Lakoff linguista estatubatuarrek ezarri zituen, 1975ean, soziolinguistika feministaren oinarriak. Bere hipotesi nagusiaren arabera, emakumezkoek eta gizonezkoek hitz egiteko modu ezberdinak dituzte. «Genero sistemaren» baitan kokatzen zuen fenomenoak, eta gizartearen eta sozializazioaren pisua aipatzen zituen. Horrela aritzera daude bideratuta sexu bat zein bestea.

«Hizkuntza txanpon bat da», dio Euskal Herriko Unibertsitatean Gizarte Antropologia irakaslea den Jone Miren Hernandezek. «Hizkuntza tresna bezala erabili daiteke, sortzailea da. Gizakiok eragiteko duguna da, eta botere performatzailea du». Adibide bat jarri du mahai gainean: «'Mutilek ez dute negarrik egiten'. Horrek efektu batzuk ditu», baieztatu du. Baina hizkuntzak, aldi berean, gizarte elementu ezberdinak ditu txertatuta, tartean genero sistema. «Ez dago ondo ikusia neskek biraoak erabiltzea», aipatu du eredu gisa. Bere ustez, «hitanoak oso ondo biltzen ditu txanponaren bi aldeak».

Egin duen ikerketa zabalean, hizkuntzari dagokionez behintzat, euskal emakumeak nagusiki bitartekari gisa agertu direla dio Hernandezek, alegia, transmisio lanetan. «Inoiz ez sortzaile edo ordezkari gisa».

Tokak gizonen bitartez espazio publikoa eta kaleak hartu dituen bitartean, noka espazio pribatuan gelditu da. Hala, kaleko galerari etxeko galera gehitzen zaio

nokariEmakumeen artean hiztun solaskidearekin kidesasuna edukitzea ez da nahikoa hitanoa erabiltzeko. Gutxiengo kidesasun hori mutilek askoz azkarrago hartzen dute antza

Hitanoaren baitan, tokak eta nokak ez dute osasun bera; azken horren ezagutza eza nagusi da. «Gizarte justu baten ikuspegitik,

«Naturalizat» jotzen da, gainera, emakumezkoen gaitasuna hizkuntzak ikasteko, umetan hizketan hasteko, hizkuntzen irakaskuntzarako...
 «Ama-hizkuntza» vs «plaza gizona» kontzeptuak jartzen ditu aurrez aurre. Edozein kasutan, eta egile batzuk sostengatzen dutena berreskuratuz, azken urteotan euskararen «feminizazioa» nabarmena gertatu dela dio, datuek behintzat baieztapen hori berresten dutela uste du.

Jaime Altuna antropologoarekin batera, besteak beste, hartu du parte Hernandezek Euskal Herriko Unibertsitateak Miramar jauregian
 «Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?» izenburupean antolatutako duen udako ikastaroan. Altunak ere sostengatzen du hizkuntza eta hitza «gizarte egituraren isla» direla, baina baita gizartearen eragile ere. Hitanoa, hizkuntzaren parte den aldetik, beste hainbeste. Galdera edo baieztapena?

Nolako hitanoa eraiki

«Hitanoaren barruan, tokak eta nokak duten osasuna ez da bera», dio Altunak. Adibidez, gazteen artean «nokaren ezagutza eza» orokorra dela azaldu du. Hori baino lehenago, ordea, galdera bat jarri du mahaiaren gainean: «Nola definitu nahi dugu hitanoaren erabilera?». Hau da, «gizarte justu baten ikuspegitik, nolako hitanoa beharko genuke?», galdegin du aretoan.

«Kidetasun» alderdia aipatu du lehenik. Bere erabilerak «adiskidetasuna» adierazten duen aldetik, ahozko hizkuntza ez formala zabaltzeko bide egokia izan daiteke; aitzitik, hainbat ikertzailek baieztatzen dutenez, «kidetasun» hori bereziki mutilen artean ematen da. «Bi aukera ditugu —dio Altunak Lakoffek berak proposatutakoa oroitzuz—: mutilen arteko lotura beharra murriztu edo emakumeen artekoa, oro har, pertsona guztien arteko lotura, sustatu».

Botere alderdia, bestetik. errespetuarekin lotu badaiteke ere, «estatusa» markatzearekin lotzen da. «Modu justu bat eratzeko» arau horiek mantendu edo aldatu beharko liratekeen hausnartzea planteatzean du.

Eta azkenik binarismo zorrotza. «Nola jokatu hain banaketa binarioa performatzen duen hizkeraren aurrean?». Kasu horretan Judith Butler filosofoa ekartzen du gogora. «Kontua ez da genero kategoriak guztiz desagerraraztea, hori zientzia-fikzioa da, baizik eta binarismo normatibo hegemonikoa arintzea». Hala, moldatu al daiteke hitanoa?

«Binarismo zorrotza zalantzan jartzen ari den garaiotan, nola jokatu hizkera honen aurrean?», galdegiten du Altunak. Bere ustez, hitanoak «etengabe» gogorarazten dizu neska edo mutila zaren, «nahiz eta hitz egiten ari zaren gaiarekin zerikusirik ez izan. Gazteleraz etengabe ‘tú, chica’, ‘tú, chico’ ariko bagina bezala». Gainera, beren burua «kategoria horietan sartzen ez duten pertsonak» gogoratzen ditu. Haien sufrimendua ere aipatzen du.

Eremu publikoa eta pribatua

Iñigo Beitia Zabalak hika eta gazteak gai hartuta egin zuen gradu amaierako lana. Eskoriatzarrak, antropologian graduatua, jaioterriko gazteek hitanoarekin duten harremana ikertu zuen. Miramar jauregian ere izan da bere ahotza entzuteko parada.

Altunaren baieztapen bera egiten du: gazteen artean nokaren ezagutza ahuldurik dago. «Beharbada —dio— beren bizitzetan tratamendu honekiko figura gutxi izan dituztelako». Gainera, etxeko transmisioan, jendartearen, hedabideetan... oso bisibilitate txikia izan du. «Espazio publikoan erreferenteak ez egoteak ere eragina izan du».

Bere hausnarketak egin ditu eta, zera uste du: kalean noka erabiltzen duten emakumeek beren zirkulu pribatuetara mugatu dutela; kafean, tertulian, meza osteko berriketan... «Beraz, tokak gizonen bitartez espazio publikoa eta kaleak hartu dituen bitartean, txikiteoan adibidez,

nolako hitanoa beharko genuke?», planteatzen dute hitanoak etengabe gogoratzen dizu neska edo mutila zaren, nahiz gaiarekin zerikusirik ez izan. Beren burua kategoria horietatik at sentitzen dutenez oroitzen da Jaime Altuna

IÑIGO BEITIA:

«Hitanoa hiztun berriak badira: laguna da erreferentzia, elkarri entzunez ikasten dute»

JONE MIREN HERNANDEZ:

«Hizkuntza txanpon bat da. Tresna bezala erabil daiteke eta gizarte elementuak ditu txertatuta»

ANDONI EGAÑA:

«Bertsotan rolak esajeratzeko balio izan dute bi kodeak, eta sexistak izan gara, onartzen dut»

ELIXABET PAGOLA:

«Gazteleran ‘e’ sartzen ari da, ‘nosotres’ esateko, kasu. Hitanoan horri bide motza ikusten diot»

JAIME ALTUNA:

«Generoak desagertzea zientzia fikzioa da, baina binarismo hegemonikoa arindu daiteke»

noka espazio pribatuan gelditu da. Eta kaleko galerari etxeko galera gehitu behar zaio. Hori, aldi berean, hikaren galera orokorrean txertatuz».

Beste hipotesi bat du Beitiak: gazteen artean toka neutroa bezala erabiltzen dute hala hartzen dutelako? «Mutil askok neskekin hitanoa gutxi erabiltzen badute ere, erabiltzen duten apurra toka da. Ezjakintasunagatik edo toka neutro gisa ikusteagatik. Eta esango nuke neska batzuek hika erabili behar izanez gero, tokara joko luketela. Ez lukete txarto hartuko».

Eta beste galdera bat mahai gainean. «Nokaren bisibilitate ezak tokaren neutraltasuna bultzatu al du?», bota du. Kontatu duenez, ikerketa egiten ari zela, gazte batek esan zion ez zuela zeinekin noka egin. «Eta gazte horrek kuadrillan neskak ditu, eta arreba ere badu. Berez, irizpideak eta baldintza objektiboak baditu. Beharbada nesken eta mutilen arteko harremanek ere beren eragina izango dute erabileran...».

Eskoriatzarrak erreferente izan du ikerketa lanetan Xabier Alberdi EHUKo irakaslea. Berak hiru hutsune aipatzen ditu nokaren galeran: eremuzkoa, batzuetan erabiltzen dute emakumeek, besteetan ez; adinezkoa, gazteek erabili ez baina helduek bai; eta sexuzkoa, emakumeek beren artean bai baino gizonekin ez. «Horri, gainera, euskalki bakoitzean dauden ohiturak gehitu behar dira», dio.

Beste hipotesi bat gehitzen du: emakumeen artean hartzun solaskidearekin kidetasuna edukitzea ez da nahikoa hitanoa erabiltzeko. «Adiskide izatea ez da derrigorrezko baldintza hikan aritzeko, baina gutxiengo kidetasuna behar da», gogoratu du Beitiak. «Badirudi –jarraitu du– gutxiengo kidetasun hori mutilek askoz azkarrago hartzen dutela. Parekoa sexu berekoa bada, gutxiengo kidetasuna hartzen dute, eta, emakumeek, aldiz, hitano solaskidea hautatzeko, antza baldintza gehiago jartzen dizkiote». Alberdik dio «kontuzago» hautatzen dutela hitano solaskidea.

Araukak urratzen, eta botere harremana hausten apurka. Gazteek gaur egun ondo ikusten dute inoiz guraso badira, seme-alabei hitanoz egitea. Erronka, berresten dutenez, nolako hitanoa nahi-behar dugun galdera konplexuari egoki erantzutea da.



Oholtzatik kanpo bakarrik... edo baita gainean ere?

Bertsolaritzak eta, horrenbestez oholtzak, bere kode propioak ditu. Araukak, metrikak eta errimak. Horretan kapidarik ba al du hitanoak? Galdera horri erantzuten saiatu ziren Andoni Egaña eta Elixabet Pagola. Iritziak iritzi, eta aukerak aukera, erronka litzatekeela ez dute ezkututzen, baina, jakina, bere zailtasunak, eta ez edonolakoak, izango litzatekeela ere aitortzen dute. Aitzitik, sormenaren zirikatzaile ona izan daitekeela bota zuen Egañak. «Eta hori inoiz ez da gauza txarra».

Gauza bitxia da oholtzak irudikatzen duen itsasertza. Handik kanpo «gure artean hika erabili ohi dugu»; bertan zergatik ez? «Gutxi entzuten da hika, eta ez luke hala izan beharko. Bertsogintza jardun

herrikoia da, temako jarduna da, eta gainera bertsolari gehienok elkarri hikaz hitz egiten diogu oholztaz behera».

Oholtza gainean egiten dutenaren «%1-%2 bakarrik» egiten dute hikaz, aipatu duenez. «Eta bada kontraesana». Baina Egañak hainbat arrazoi maneiatzen ditu, bereziki mikrofonoak berak duen pisuagatik. «Publikoari begira egiten dugu bertsotan, haiek egiten dute galbahe lana eta zuka ateratzen da. Zuen bitartez esaten dizkiot sekulakoak, goxoak zein ozpinak, Eliri –bota du adibide gisa–. Eta uste dut horregatik dela». Mikrofonoak, bereziki lurrean hankaz eusten denak, oholztara eusten ditu bertsolariak, eta parez pare begiratzera derrigortzen ditu, kideari beharrean. Gauza bitxia gertatzen da, baina, dio Egañak, bertsolariak bere buruari kantuan egiten dionean. Orduan bai baliatzen du hika. Lazkao Txikik ispiluauren aurrean bota zuen bertsoa gogora ekarri du. «Aizak nik hiri bota behar dit bertso koxkor bat edo bi,/ behingoan jarri geranez gero, biok aurpegiz aurpegi/ neri begira hortik daduzkat alperrikako bi begi,/ hik ez nauk noski ni ikusiko, baina nik ikusten haut hi. (...)».

1980ko eta 1982ko bertsolaritza txapelketetan Xabier Amurizak hikaz aritzeko ahalegina egin zuela gogoratu du Egañak, eta saio batean Amuriza eta Lazkano horrela aritu zirela, gaia hikaz jarri zitzaielako. Ideia ere bota du: etorkizuneko bertsolaritzak ea nola erantzungo lioken gaiak horrela proposatzeari...

Noiz gehitzen duen eta noiz kendu

Elixabetek «zailtasunak» ikusten dizkio auziari. «Ez dut zuka bezain ondo kontrolatzen erregistroa. Zukaz kantatzen ikasi dut, eta bertsotarako gauza asko pentsatu behar dira, indar handia gal daiteke bat-batekoa den saiorako. Hizkuntza menperatzea ezinbestekoa da», argudiatu du.

Baina ez dute erabat baztertzen, erregistro jakin honek behar zehatzak asetzen dituelako. Hor sartzen da «sinesgarritasuna». «Andoniri amona Anttoniren papera ematen badiote, nokaz egiteak sinesgarritasuna emango lioke, erabat. Kasu horretan, dudarik gabe, hikak balio du. Baina oholztara ez goaz jolastera, esperimintatzera esan nahi dut. Konpromiso bat duzu eta erantzun egin behar zaio horri. Ez da momentua hikarekin probatzen hasteko», uste du hernaniarrak.


Eskarmentu propiotik hitz eginez, Egañak dio hikaz bertsotan egiteak metrika «deskontrolatu» egiten duela, baita dituen «automatismoak» ere. «Bereziki gauza batek kezkatzen nau: jakiteak hika egiteak noiz gehitzen duen eta noiz ez. Menorreko tonuetan hobeto doa, maiorretan krak egiten dit belarrira».

Eta zer diote tokak/nokak izan dezakeen (edo ez) tendentzia sexistaz? «Egia da hikaz aritu izan naizenetan batzuetan uste errotu sexista batetik aritu izan naizela. Egia da. Rolak esajeratzeko balio izan dute bi kodeek, eta sexistak izan gara, onartzen dut». Adibide bezala jartzen ditu labe garaietako bi langile, gizonezkoak noski, eta bi amona balkoian berriketan herriko festetan. Lehengo kasuan ez dute hika erabiltzen; bigarrenean, berriz, bai. «Eta tranpa da, bi langileek ere egin dezaketelako hika, bi amonek noka bezala».

Oholtzatik kanpo jarri du arreta Pagolak. «Generoa puri-purian dagoen honetan, gaztelean 'e' sartzen ari da, 'nosotres' adibidez. Hitanoan horri oso bide motza ikusten diot, mugak dituelako. 'Dizkiat'/'dizkinat'. A, eta neutroa zein da? Hor beste zerbait behar da edo horrek ez du balio behintzat. Denentzat toka edo denentzat noka... eta gero ikusiko da bidea duten edo ez. Erabilerak markatuko du sexistak diren edo ez, zer balore transmititzen diren, eta zer forma hartzen duten». Elkarriketa hasieran generoa galdetzeko ohitura hartzea beste aukera gisa aipatzen du.

Kalean ere izan ditu esperientziak, hausnarketara bultzatu dutenak. «Hikaz ari dira, baina zu agertzen zara eta zukaz hasten dira. Ez dakit zein punturaino den umiliazioa edo haien ahulezia... Zalantzak sortzen zaizkit».

4.3 Argazkiak – Fotografías



**Amelia Barquín, Garbiñe Bereziartua, Olatz Altuna,
Onintza Legorburu, Karlos Aretxabaleta, Beñat Muguruza**




Bernardo Atxaga, Josune Zabala, Amelia Barquín



Jone Miren Hernández, Jaime Altuna, Andoni Egaña,
Iñigo Beitia, Elixabet Pagola



Garbiñe Bereziartua



Beñat Muguruza



Olatz Altuna



Onintza Legorburu



Gela

Izan al daiteke hitanoa emakumeak boteretzeko tresna bat, sexismoaren aurrean?

“Zenbateraino hika Azpeitian?” (Olatz Altuna Zumeta eta Garbiñe Bereziartua Etxeberria)

Aurkezpenari hasiera Bereziartuak eman zion, orain arte hitanoaren inguruan egin diren ikerketak aipatuz. Ikerketa horien artean aipatu ziren Euskal Herriko Soziolinguistika Klusterrak Azpeitian eta Usurbilen hitanoaren presentzia kuantifikatzeko egindako ikerketak eta horien berri eman zuen Altunak. Lekukoa berriro ere Bereziartuak hartu eta Azpeitiko hitanoaren erabileraren gainean egiten ari diren ikerketaren nondik norakoak azaldu zituen. Erabilitako metodologiaren deskribapena eginez hasi zen eta segidan hainbat punturen inguruan ateratako emaitzak plazaratu zituen. Ikerketan ateratako ondorio batzuk neska eta mutilen arteko desberdintasuna eta belaunaldien artean dauden desberdintasunak izan ziren. Amaitzeko hausnarketarako eta eztabaidarako puntuak jarri zituen mahai gainean: hitanoa izan ote daiteke gazteak gaztelaniara jo beharrik ez izateko tresna? Hitanoa norentzat izan daiteke baliagarria? Nola egin behar litzateke transmisioa? Zuzentasunez hitz egitea oztopoa al da? Generoen banaketa binarioa auzitan jartzen ari den garaiotan zein leku hartu beharko luke hitanoak? Euskararentzat mesede izan ote liteke?

“Hitanoa bertsolaritzan: genero-begiradak” (Beñat Muguruza Aseginolaza)

Muguruzak hartu zuen hitza bigarren aurkezpenean. Lehenengo, berak egindako ikerketa kuantitatiboa izan zuen hizpide. 1986tik honako Bertsolari Txapelketa Nagusietan botatako bertsoetan hikako aditz-formen presentzia aztertuta ateratako datuak erakutsi zituen, presentzia oso baxua izan arren azken urteetan goranzko joera erakusten duten datuak. Bigarren zatian bertso munduko hainbat pertsonari egindako elkarrizketetan jasotakoak mahaigaineratu zituen, horien artean: Uxue Alberdi, Xabier Amuriza, Miren Artetxe edota Aitor Sarriegi. Honelako gaiei buruz esandakoak helarazi zituen: emakumeekin hika egiteko ohiturarik eza, bertsolari-estiloen arteko talka, sinesgarritasuna, transgresioa, ahalduntzea, botere-harremanak edota binarismoa.

“Arratiako noketaren galera XX. mendean zehar” (Karlos Aretxabaleta Ormaetxea)

Aretxabaleta bere gaia kokatzeko Arratiako testuinguru linguistikoa eta Arratiako hitanoaren ezaugarriak azalduz hasi zen. Nokaren atzerakadaren atzean egon litezkeen arrazoiak gogorarazi zituen, esaterako: elizaren debekua, emakume asko hirigunera neskame joan izana, kalean gizonen arteko tokak toki gehiago hartu izana (emakumeak etxean zeuden bitartean) edota baserri girotik kanpo tratamendua baztertu izana (prestijio txarragatik). Bere ustez XX. mendearekin etorritako aldaketek Arratiako zimendu soziolinguistikoak astindu zituzten, baserri kultura galtzen joan zen, eta horrekin batera hitanoa ere bai, bereziki noka.

“Antzuolan noketan: zer gertatzen da?” (Onintza Legorburu Larrea)

Legorburuk Antzuolan kokatu zuen hitanoaren gaia. Honako galderarekin eman zion hasiera bere aurkezpenari: *Izan al dute eraginik genero rolek hitanoaren erabileran Antzuolan?* Aurkezpenaren amaieran baiezkota erantzun zion galdera horri, beti baten galeran eta bestearen biziraupenean. Baina tartean erantzun horretaraino iristeko arrazoiak eman zituen.

"Hizkuntza mudantza" kontzeptuari lotuta, zukatik hikarako saltoa identitatearekin lotuta egin ohi dela aipatu zuen. Hizpide izan zituen baita ere transmisioan egon den etena eta agian berdinen arteko transmisioa kontuan hartzeko beharra, euskararen galeran emakumeei errua egotzi izana edota generoen arabera egiten den espazio publikoa eta pribatuaren arteko banaketa. Hizkuntzaren sozializazioa eta hizkuntzekin batera doazen balioak ere kontuan hartu zituen, esanez noka ez dela ezkontzen feminitate hegemonikoaren baloreekin.

"Hitanoaren erabilera: ikuspuntu desberdinak" (Josune Zabala Alberdi, Bernardo Atxaga eta Amelia Barquín López)

Barquínek eman zion hasiera aurkezpenari. Euskara beste hizkuntza batzuk bezain sexista ez den usteari heldu zion. Eta genero hizkuntza ez izan arren edo maskulino orokorrik ez izan arren zenbait egoeratan jokabide sexistak badaudela azaldu zuen, esaterako: hitanoa erabiltzea erabaki den publizitate kanpainetan toka egin izan dela (*Erretzeari utzi iezaio*), abesti askotan ere toka erabili izan dela (*Kanta zak euskalduna, kanta zak hire herrira*) eta esaera zaharretan ere bai (*Emaileari emok, egileari egio*). Horrekin batera esan zuen euskararen baitan hitanoa dela genero morfologikoa daukan dimentsio bakarra. Hala ere, aipatu zuen hizkuntza erromanikoetan binarismoari alde egitea zaila bada ere euskara hizkuntza "queer"agoa dela.

Ondoren Atxagak heldu zion lekukoari. Baudelaire-en hitzak ekarri hasi zen: *infinitoaren ideia bat hartzeko nahikoa litzaiguke itsas mila bat ikustea*. Atxagak, berak ikusten duen millari buruz hitz egin zuen. Eta literaturako zenbait pasartetan kokatu zuen hitanoa. Lehenik, Gabriel Arestik itzuli zuen Blas de Oteroren olerki batean. Hurbiltasuna lortzeko helburuz hitanoa erabili omen zuen Arestik, hurbiltasuna, burkidetasuna edo kamaraderia. Bigarrenik, Arestik egindako beste itzulpen bati buruz aritu zen: Nazim Hikmet-en *Taranta-Babu-ri gutunak* izeneko maitasun poemak. Kasu horretan ere hurbiltasuna adierazteko noka erabili zen. Hirugarrenik, Cervantes-en *Vizcaino* ekarri zuen gogora. Pertsonaia mota bat karakterizatzeko tresna moduan aurkeztu zuen hitanoa, gure kasuan *Pello Kirten* deitu geniezaiokeena. Pertsonai mota horri hizkuntza marka bat ezarri izan zaio hitanoarekin (pertsonai planoa, geografiaren gune batera eramaten gaituena). Hala ere, esan zuen errepresentazioak askotan jan egiten duela errealitatea eta *Pello Kirten* ez dela hika egiten duen bakarra.

"Hitanoa eskolan lantzeko egitasmoa: Azpeitia eta Zumaia" (Josune Zabala Alberdi eta Olatz Bengoetxea Manterola)

Egitasmoaren historia eginez hasi zuen tarte Zabala, 2009tik hasi eta gaurdaino. Egitasmoan hiru figurak parte hartu dute: bi herrietako euskara teknikariak, ikastetxeetako ordezkariak eta hasiera batean Mintzolako eta ondoren Soziolinguistika Klusterreko teknikariak. Lehen Hezkuntzako 5. mailatik hasi eta Bigarren Hezkuntzako 4. mailara arte erabiltzeko materialak sortu dituzte, urte bakoitzeko bi material, bakoitza 5-7 ordukoa. Material horren ezaugarrien artean hauek aipatu zituen Bengoetxeak: ikuspuntu eraikitzailea eta komunikatiboa edukitzea, herriko hitanoa eta herriko erreferentziak erabiltzea, ludikoa izatea, ahozkoak toki esanguratsua izatea eta curriculumera egokituta egotea. Orain artekoak ikusita atera dituzten ondorioen artea positiboak eta negatiboak bereizi zituzten. Negatiboen artean: formakuntzak ekarri izan dituen zailtasunak, jendearen aurreiritziei aurre egin beharra, egitasmoa beste herrietara zabaltzeko ez izana edota ikerketen falta. Eta positiboen artean: esperientzia pilotua izan arren oso emankorra izaten ari dela, lankidetzan garatuz doan proiektua dela edota bai irakasle eta bai ikasleak motibatuta ikusten dituztela.

"Ba al dago hizkuntza neutrorik? Euskara generoaz ere mintzo da" (Jaime Altuna Ramírez, Jone Miren Hernández García eta Iñigo Beitia)

Antropologia feminista ikerketa taldeko hiru kideek hartu zuten hitza hurrengo tartean. Hernandez abiatu zen, antropologia feminista eta hizkuntzen erabilera uztartzen dituzten teoriak mahai gainean jarritz, Lakoff bezalako adituak aipatuz. Bere iritzian hitanoa ate bat bezala da, ireki eta mundu oso bat erakusten duena; altxor bat, beste mila gairi buruz gogoetan egiteko.

Teoria orokorretatik euskarara salto egin zuen Altunak. Besteak beste honakoak galdetu zituen: Nola definitu nahi dugu hitanoaren erabilera? Alegia, gizarte justu baten ikuspegitik nolako hitanoa beharko genuke? Horri erantzuna eman nahian bi alderdi aipatu zituen: kidetasun alderdia eta botere alderdia. Lehenengoari dagokionez, euskararen biziberritze prozesuan hitanoaren sustapena oso erabilgarria izan daiteke, baina oraingoz batik bat mutilen artean ematen da kidetasun alderdi hori. Eta nola planteatu hitanoa ikuspegi horretatik? Noka sustatuz? Toka murriztuz? Noka guztientzat zabalduz? Botere alderdiari dagokionez, estatusa markatzearekin zerikusia dauka eta hor ikusi egin beharko litzateke hitanoak dituen arauekin zer egin.

Beitia Eskoriatzan hitanoari buruz egindako ikerketaren berri eman zuen. Bere lanean ateratako ondorio nagusiak lau dira: (1) gazteek hika euskalduntasunarekin edo autentikotasunarekin lotzen dutela; (2) beste batzuek zakartasunarekin lotzen dutela eta hor jendeak daukan iruditeriaren pisua nabari dela; (3) tradizionalki gaizki ikusia egon dela eta hor galdetzen zuen ea hikaren erabileraren eta klase sozialen artean lotura egiterik egon ote litekeen; eta (4) etxeko transmisioan etena egon dela ikusi zuen.

"Aizank hi mainontzi" (Andoni Egaña Makazaga eta Elixabet Pagola Apezetxea)

Jardunaldiaren amaieran bertsolarien txanda izan zen. Pagolak Hernanin gauzatutako noka ikastaroaren berri eman zuen lehenengo. Emakumeen artean erabat galduta dagoen eremuan hainbat gauza pentsatzeko beta eman zien ikastaroak, horietan lehena hau: hitanoa zertarako erabil genezake? Hortik abiatuta esan zuen garaiak aldatzearekin batera hizkuntzek ere aldatzen joan behar dutela eta hitanoaren kontu honetan mutilek haizea alde daukaten arren neskek kontra daukatela. Hitanoa bertsoetara eramateko aurkitzen dituzten egoerez ere aritu zen, besteak beste: bertsolari gehienek tratamendu hori kontrolatzen ez dutenez bat-batekoa den jardunean indar asko galarazten duela, pertsonaiei sinesgarritasuna emateko erabilgarria izan litekeela, bertsolaritzan hitanoa ikuskera jakin batekin lotu ohi dela baina horrek ez daukala horrela zer izanik eta *pedigri* kontuetan sartzea arriskutsua izan litekeela.

Egaña eman zion amaiera jardunaldiari. Bertsogintzan hitanoa gutxitan erabili izan dela esanez abiatu zen, eta horren arrazoi bat eman ere bai: bertsolariak, bata besteari jardun arren, beti publikoari ari direla. Gutxi egin arren salbuespenak ere ekarri zituen gogora, besteak beste Lasartek edo Lazkao Txikik beren buruari hika egindako kasuak. Esan zuen, baita ere, gertatu izan litekeela hika egindako testuinguruetakoa bertsoak guganaino iritsi ez izana.

Hitanoak bertsoak osatzeko garaian metrika eta errime zailtasuna eransten diela aipatu zuen, baina nokako formak gutxiago hausten duela errima sistema ere bai, n-z bukatzen diren hitzekin moldatzea errazagoa delako. Egañaren kezka ez da hitanoak bertsoari garo-usaina ematen al dion ala ez, baizik hika egiteak bertsoari noiz gehitzen dion eta noiz ez. Dena dela, belaunaldi berriek hika gehiago egingo duten ustea dauka, euskara garatuago egongo delako. Bere iritzian gauzak diferente egingo dira edo gauza diferenteak egingo dira.